



FISKALITATE BERRITZAILEA: DIGITALIZAZIOAREN ERRONKAK

Gizarte osoaren digitalizazioa, eta jarduera ekonomikoarena bereziki, goraka ari den garai honetan negozio berriak ari dira sortzen, merkatu eta diru digital berriak agertzen ari dira, eta teknologia berriak jartzen ari zaizkigu eskura. Testuingurua hori delarik, informazioak badu, eduki ere, balio handiagoa.

Nola egiten die aurre erronka horiei Zerga Administrazioak? Zer abantaila dakarzkigu digitalizazioak zergen kudeaketan? Zer urrats espero dira ematea Europako eta tokiko fiskalitatean, datozen urteetan? Ekonomia Ituna egokitu beharko genuke?

Testuinguru horretan, hainbat proiektu sortu dira zerga administrazio ezberdinetan, hala nola TicketBAI, Verifactu eta ViDA izenekoak, askotariko helburuak dituztenak, esate baterako, ekonomia digitalizatzea, iruzurrari aurre egitea eta informazioa kudeatzea zerga betebeharrak betetzen laguntzeko eta gizartearen beharretara hobeto egokitutako zerga eta aurrekontu politikak prestatzeko, betiere tributazioa eraginkorragoa eta bidezkoagoa izan dadin.

Ikastaroa honela dago banatuta:

9.30: Inaugurazio ekitaldia eta ikastaroa testuinguruan kokatzea.

9.50 – 10.35: Fakturazio elektronikoa eta txosten digitalak: tokiko, estatuko eta Europako ikuspegia.

- SII, TicketBAI eta Verifactu proiektuak; faktura elektronikoa *Sortu eta Hazi* legearen arabera, eta ViDA proiektua.

Proposatutako hizlaria:

- Rufino de la Rosa
Head of E-Invoice and Public Policy (Faktura Elektronikoen eta Politika Publikoen zuzendaria)
Marosa enpresan

10.35-11.20: BEZaren OSS sistema: leihatila bakarraren bilakaera

2015eko urtarrilaren 1ean mini leihatila bakarra (MOSS sistema) jarri zen martxan. 2021eko uztailaren 1ean leihatila txiki hori zabaldu eta OSS sistemara pasatu zen (leihatila bakarra), bertan hornidura mota gehiago hartuz eta sinplifikazio berriak sartuz.

Araubide hori Europako Batzordeak BEZari dagokionez sustatu duen erreformaren zutabeetako bat da, eta lehentasunezkoa da EBko Merkatu Digital Bakarraren estrategiaren barruan.

OSS (One Stop Shop) araubidea irtenbide berritzaile eta abantailatsua da Europar Batasunean kontsumitzaile pribatuei mugaz gaindiko salmentak egiten dizkieten enpresentzat. Hautazko araubide horrek nabarmen sinplifikatzen ditu BEZaren betebeharrak ondasunak eta zerbitzuak atzerrian saltzen dituztenentzat, eta aukera ematen die kontabilitate erregistro guztiak eta BEZaren aitopenenak lineako atari bakar baten bidez kudeatzeko.

Zer bilakaera izango du araubide horrek datozen urteetan?

[Plataformak OSS.pdf](#)



Proposatutako hizlaria:

- Yolanda Dominguez Román
Zerga Kudeaketako Zuzendariorde Nagusia – Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Estibaliz Seijas Armental
Zeharkako Zergak, Eskualdaketen Gaietako Zergak eta Ingurumen Tributuak Kudeatzeko Zerbitzuburua - Gipuzkoako Foru Aldundia.

11.20-11.50: Coffee break

11.50-12.40: Plataformen ekonomia. Booking enpresaren ikuspegia zerga eta informazio betebeharrak berriak.

Egonaldi laburreko ostaluen sektorean (45 egun baino gutxiagoko egonaldiak) eta bidaiarien garraioaren sektorean dauden lehia distortsioak murriztea du helburu ViDA proiektuak. Horretarako, handitu egingo da bi sektore horietan plataformek BEZaren ordainarazpenean duten protagonismoa, eta plataformen obligazio biltzaileak indartuko dira. Gainera, Estatuan eta toki mailan, duela gutxi informazio betebeharrak ezarri dira DAC7 zuzentarauaren ondorioz.

Proposatutako hizlaria:

- Samuel González Romero.
Senior TAX Manager (Goi mailako Zerga Kudeatzailea) Booking konpainian

12.40-13.45: Mahai ingurua: Konexio puntuak, errealitate ekonomiko berriak eta fiskalitatea: kontzertu ekonomikoa.

Mahai inguruko kideak:

- Iñaki Alonso Arce
Eusko Jaurlaritzako Ogasun sailburuordea
- Itziar Gonzalo de Zuazo.
Arabako Foru Aldundiko Ogasun, Finantza eta Aurrekontuetako foru diputatua
- Itxaso Berrojalbiz Zabala
Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatua
- Itziar Agirre Berriotxoak
Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatua

13.45-14.00: Amaiera ekitaldia.